

TOURÉ

Zenbaki gorriak

JON ARRETXE



erein

TOURÉ

Zenbaki gorriak

34

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024ko azaroan

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

A. Beltza

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-963-5

L.G.: D 1016-2024

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

TOURÉ

Zenbaki gorriak

JON ARRETXE

erein

I ZULOTIK



Gauza txarragoak egin ditut, ez da hainbesterako. Hori da, behintzat, behin eta berriz neure buruari errepikatzen diodana, metro-bidaia luzeak aurrera egin ahala sortzen zaizkidan zalantzak neutralizatu nahian. Azken baten, minutu batzuetako atsekabearen ondoren behar-beharrezkoak ditudan euroak jasoko ditut...

Baina ez, lurpetik irten eta helmugara, Artos plazara, ailegatutakoan, ezin dudala jarraitu jabetu naiz. Hortxe geldirik nagoela, ez aurrera ez atzera, itxura aztoragarriko morroi bati erreparatu diot; jarleku batetik altxatu eta niganantz abiatu da, gorroto aurpegiaz. Zer arraio? Gainera, tipoa ez dago bakarrik, beste batzuek jarraitzen diote, neonazi mardarikatu horien estetika dute eta agerian dago ez daukatela ezer onik buruan. Erne jarri naiz. Zenbat dira? Bat, bi, hiru... lau, gehiegi. Bat erraz ostiatuko nuke, birekin ere ausartuko nintzateke, baina lauren kontra ez daukat zereginik. Aurretik datorrena, gainera, ukabil amerikarra janzten ari da,

jarraitzen dionak labana darama eskuan... Hobe dut ospa egin, segundorik galdu gabe.

Berriro korrika, berriro ihesi, bizia salbatzearren. Atzamarrik mugitzen ez duten terrazetako edaleei iskin eginez, jarraitzaileen biraoak aditzen ditut: «beltz madarikatua!», «marikoi hori!», «hilkutxa baten itzuliko zara Afrikara...!».

Errepide bat zeharkatutakoan atzera begiratu dut, bu-ruan jarri dena ni baino bizkorragoa da... Joder, kaskamotz ziztrin horrek harrapatu egin behar nau, arnasa aditzen diot ia kokotean, ez dirudi armarik daukanik... Padel-pista batzuen albora ailegatzerakoan, bat-batean gelditu naiz, eta, jazarlea ustekabeen harrapatuta, hankak airean ipini dizkiot muturrean jotako kako-kolpeaz. Lurrera erori da, zerraldo, horrek ez dit arazo gehiagorik emango. Bigarrena ere gainera datorkit; ukabil amerikarra janzten duena da, haren kolpeak erdizka harrapatu nau, sorbalda aldean. Nire erantzuna saihesterian jotako belaunkada izan da, ostikada bat bernan, ukabilkada lokian... Etzanda utzi dut hau ere, baina berriz altxatzeko ahaleginetan ari da. Beste biak ere hurbil dauzkat dagoeneko, biek daramate labana. Padelean ari direnetako batzuk guri begira geratu dira, tutik esan gabe; beste batzuek joko eten ere ez dute egin. Ihesari ekin diot berriz, oso nekatuta jada, hurreratzen ari zait hirugarren neonazia... «Labezomorroa!», aditu diot. Besoa luzatu du eta haren armaren ziztada nabaritu dut ipurdiaren goiko aldean. Antza denez, ez nau bete-beteen harrapatu, ze korrika jarraitu dezaket min handiegirik gabe. Atzera begiratu dut osteria ere eta badirudi jazarleek amore eman dutela. «Izorra hadi, orin hori! Hurrengoan

zakila ebakiko diagu!», bota didate. Keinu zatarrak erantsi dizkiete euren hitzei, baina gelditu egin dira, sikeran.

Nik galapan jarraitu dut, abiadura pixkanaka mantso-tuz bada ere. Pot eginda nago, baina ezin fidatu. «Sarrià» metro geltokia jo dut begiz, eta, dagoeneko guztiz konbentziturik inork ez didala jarraitzen, gelditu eta eskua ipurtaldera eraman dut. Odolez busti zait.

* * *

Nire arropen kolore ilunari esker ez zaizkit gehiegi nabarmentzen odolaren arrastoak, badirudi zauria ez dela sakona eta jarioa eten egin dela. Horretarako lagungarria izan zait La Barcelonetako hondartzan hartu dudan bainua, galtzontzillotan, hainbat giri mozkortiren begiradapean. Gero erdialderantz jo dut, oinez, xentimorik gabe bainago. Metroan kolatu egiten naiz noizean behin, baina ez zait komeni gehiegitan saiatzea, ze egunen baten harrapatuko naute eta, poliziaren esku amaituz gero, arazo larriak izango ditut; alde batetik, paperik ezaren kontura, eta bestetik nire delitu-historia luzeagatik. Linboan gelditu dira, oraingoz, Kanarietan, Parisen, Nafarroan, Madrilen eta, batez ere, Bilbon egindako aldrebeskeriak, eta ondo daude hor. Niretzat hondagarria izan liteke norbaitek Bilboko San Frantziskon Osman, Xihab eta Kristinarekin batera egin nituenak ikeretzea. Gauza haien ondorioa izan zen hiru gizonok ospa egitea, eta nire neska-laguna behin-behinean kartzelan sartzea droga-trafikoa leporatuta.

Turistak eta turistak, La Barcelonetako bazter guztietan, portuaren inguruan, Kolon pasealekuan, Rambletan arago... Haietariko batzuk beltzak dira, baina ez ni bezalako beltzak, baizik eta dirudun itxurako amerikarrak, ingelesak, frantsesak edo batek-daki-nongoak. Ni, Gorom-Gorom herriko burkinafasoar txiro hau, errazago mimetizatzen naiz gurditxoei bultzaka metal bila ari diren afrikar ugariekin. Hortxe daude batzuk, eraberritzen ari diren McDonaldsaren aurrean pazientziatsu, langileek burdina sobranteak jasotzeko baimena noiz emango dieten zain.

Ramblak utzi eta Liceuaren ondoko Hospital kaletik jotut Raval aldera. Auzo hori bilakatu zait ohiko pausaleku eta atsedentoki Las Palmastik Bartzelonara ekarri ninduen itsasontzitik jaitsi nintzenetik. Hortxe dago hiriko etxegabe, etorkin txiro eta, orokorrean, gizarteko baztertu pilaketarik handiena. Horixe da niretzako tokia, azken baten, lehenago Bilboko San Frantzisko, Parisko Barbès edo Madrilgo Lavapiés izan ziren bezalaxe.

Beti izango dut zalantza Kanarietatik alde egiterakoan norabide zuzena hartu ote nuen. Handik Afrikara itzultzea ere baneukan, aspaldi utzi nuen familiarengana, baina ez nuen haiekin kontaktatzea lortu. Badirudi nitaz eta nire promesa hutsalez nazkaturik daudela, ez dutela etxeko gizonaz ezer jakin nahi, eta ezin diet ezer leporatu, handik abiatzerakoan egin genituen planak, etorkizun oparoa ekarri behar zigutenak, guztiz zapuztu baitira denboraren poderioz. Gauzak hala, Bartzelonan proba egitea erabaki nuen, Las Palmasko kontaktuek honako bidaia ahalbidetu zidatela

aprobetxatuz. Eta hemen nago, proba horren hasiera etsigarriari buelta emateko ahaleginetan.

Espaloi estutik jaitsi behar izan dut kontrako bidean datorren afrikar gurdidunari pasatzen uzteko. Ozta-ozta eusten dio orekari gurditxoan daramatzan tramankulu guztiak ez jausteko: metalezko barra luzeak, harraska zahar bat, labe bat... Beste horrenbesteko meritua dauka, espaloian kabitu ezinda, errepidetik datorren gizon latinoak, somier erraldoia garraiatzen baitu. Txirrindulari mandatu-banantzailleek erraz egiten diote iskin, baina auto-gidariak klaxona jotzen diote, aurreratzeko espazioa bilatu nahian.

Ezkerretara jo dut Robador karrikaren sarrera estutik. Utzikeria da nagusi hemen, pixa-hatsa darie hornei, hondakinak ageri dira lurrian: zakar-poltsak, arropa zaharrak, botilatxo eta lata hutsak... Horri denari muzin eginda pilatzen dira bazterretan kaleko emakumeak, eguneko edozer ordutan topa daitezkeenak. Gehienek eserita ematen dute denbora, hondartzako aulkietan, edari-kutxa edo pinturapotoetan, lurrian bertan kokatutako kartoieta... Haiak ez didate jaramonik egin, gosekil itxurakooi dagokigunez. Aitzitik, kalekkako giro arbuiaurekin bat datorren Danubio taberna-zuloaren arduradunak, bere lokalean sartu naizeneko erreparatu dit, erreparatu eta erne jarri.

—Zer dela eta aurpegi hori, Touré? Zaude...

Ez diot jarraitzeko aukerarik eman. Barraren kanpoaldetik besoa luzatu, paparretik oratu eta nire aldera erakarri dut airean. Burukada jo diot aurpegian, eta, sudurretik odola dariola, atzeko hormaren kontra bota dut. Haren

madarikazio eta mehatxuei entzungor eginez irten naiz tabernatik.

—Zergatik jo duzu Petko? —itaundu dit Montsek, Robadorreko prostituta nazional urrietako batek, tabernaren sarreratik.

—Berak badaki.

Alde egin dut, azalpenetan luzatzeko gogorik gabe.

—A ze jenio txarra! —esan dit gizon burusoil batek alboko atariaren sarreratik—. Egingo dizut zupaldi merke bat erlaxatzen laguntzeko?

Tipoaren proposamenari muzin eginda, aurrera segitu dut. Auzoko meskita zenbakaitzetako bat atzean utzi dut, auzo miserable honetan lar deigarria suertatzen den Filmoteka berri dotorearen albotik igaro naiz, eta segituan are deigarriagoa den Barceló hotel modernoarekin egin dut topo. Zilindro erraldoi bat da, burdinsare moduko batez erabat inguratuta dagoena. Taxuzkoagoa izango litzateke espazio-ontzi bat Gorrom-Goromeko azokaren erdian. Gisa horretako eraikinekin Raval eraberritu nahi izan omen zuten agintariek duela hainbat urte, baina agerian dago ahalegina porrot hutsa izan zela.

Errepidea zeharkatu eta helmugara ailegatu naiz, palmeraz eta platanondo hornitutako Ravaleko Ramblara. Bi magrebtar multzoren arteko iskanbila baretzen ari diren mossoei iskin eginez, pasealekuko bankuen artetik jo dut aurrera. Etorkin jendeak betetzen ditu gehienak, etxebako itxura daukate haietariko askok.

Komun publikora joan naiz zuzen, artelana ei den metalezko katutzarraren aurrean. Sartu, pixa-arrada bota, eta,

kalera itzultzean, atearen kontra pixa egiten ari den agure batekin egin dut topo. Sikh bizartzuri makuludun bat errieta egiten ari zaio, arrakasta handiegirik gabe. Turrustaren zipritinak saihestuz, libre ikusi dudana jarleku batera jo eta hantxe jesarri naiz, katuari begira. Zazpi-zortzi metro izango da luze, eta metro pare bat altu, nire atzamarren lodierako biboteak dauzka, kriskitina lepoan zintzilik, potro biribil-biribil bi... edo titiak dira? Horretaz ari dira eztabaidan bi latino mozkorti.

Egunean zehar turista mordoa etortzen da eskultura honen aurrera argazkiak eta selfieak egitera, baina ordu honetan ez, beranduegi da haientzat, orain jatetxe txukunen baten egongo dira bapo afaltzen, edo euren hotel izardunetan atsedean hartzen. Ia ahaztuta daukat ni neu ere halako giroetan ibili nintzen garaia, poltsikoak bero izan nituen bolada oparo urrietan, Parisen, Madrilan... Orain, oster, behe-beheko zuloan nago berriro, ohe bero merkeak eskaintzen dituzten lonja zikinetara ere ezin naiz joan, eta nekez harapatuko ditut zabortegekia ez den koltxoi bat edo garbi usaineko izara batzuk.

Arabierazko elkarrizketen zurrumurrua belarrietan, begiak itxi ditut lokartzeko esperantzaz, baina berehala ohartu naiz kostako zaidala. Izan ere, galtzontzilloak bustita dauzkat oraindik, eta, giharrak hozten hasi direnez, ipurdiko zauriak gehiago molestatzen nau. Kaka-uria baino ez da falta egoera biribila izan dadin.

* * *

La Barcelonetako carrer de la Sal bakartiaren bosgarren zenbakiaren parean nago, geldi, zentzumenak erne, nire aukeraren zain. Sabela beteta daukat, behintzat, Ravaleko kariatate-mojen jatetxe sozialari esker. Eta, prezio berean, zauria ganoraz garbitu didate, oraindik bai baitago jendea hiriko gosekiloz arduratzen dena. Moja errukitsuek esan didatenez, ipurdiko aberia ez da handiegia, baina minak egun batzuetan gogoraraziko omen dit nozitu dudan eraso. Ez nuen espero Bartzelonan ere halako neonazi talderik topatzea, baina, ageri denez, nonahi ari da indartzen eskuin muturreko ideologia. Eta txarrena da haren jarraitzaileak harrotuta daudela eta kaleaz ere jabetu nahi dutela. Kanpotar txirook gara haien jomugetako bat, jakina, ez dator garai samurra guretzat.

Edonola ere, datorrena datorrela, oraina da kontua niretzat. Hiri handi honetan ez dut uste gosez hilko naizenik, GKE antzeko elkarte asko baitaude debaldeko jatorduak eskaintzen dituztenak, baina dirua behar dut hobeto elikatzeke, arroparen bat erosteko, kalean lo egiteari uzteko, eta... bai, hortik datorren bikote horrek lagunduko dit helburua betetzen. Atzerritar itxurako andre-gizonak dira, nagusi samarrak, ondo jantziak... Ez da begiluzerik ageri, eta, astirik galtzeke, haiengana hurbildu, andreak besotik zintzilik daraman poltsari oratu eta tira egin dut bortxaz. Ia atera diot sorbalda bere lekutik, baina ez dut altxorra askatzea lortu. Gainera, oihuka hasi da atsoa, gizona ere bai, oldartu egin zait hau; zaplazteko bat nahikoa izan da niganetik aldentzeko, baina andreak aurpegia atximurkatu dit, honi ere txalo bat eman behar izan diot. Lurrera jausi da...

Zarata lar, bizilagun bat balkoira atera eta «lapurrari!» oihukatzen hasi da, kalearen beheko puntatik pasatzen ari den jendearen arreta erakarri dugu... Atsoa poltsaren gainean geratu da etzanda, orduan haren lepokoari erreparatu diot, bola potoloz eratuta dago eta urre koloreko itxigailua dauka, adarbakar baten irudiaz apaindua. Garestia izateko itxura dauka eta indar guztiz egin diot tira. Ia estrangulatu behar izan dut tipa katea apurtzeko; hala ere, bola gehienak lurretik sakabanatu dira, bi baino ez zaizkit geratu eskuan. Beste hiru jaso ditut presaka, urrezko itxigailua ez dut ikusten; bigarren bizilagun zaratatsu bat irten da beste balkoi batera, kalearen beheko puntakoak ere niri biraoka hasi dira... Bizkor desagertu behar dut hemendik, balizko harribitxietako batzuk poltsikoan sartu eta korrika hasi naiz berriro, begiluze pila-ketaren kontrako norabidean. Minduta daukat oraindik ipurdia, joder!

* * *

—Berriro diotsut ez nekiela atzo neonaziak ibiliko zirela Artos plazan. Bestela, ez zintudan hara bidaliko.

Petkoren hitza, hutsaren hurrengo. Apur bat jaitsi du musikaren bolumena —Ahots baxu boteretsuko opera-kantari bat da, frantsesez ari dena «...*pour plaisir ils ont leur combats...*»—, eta gero insistitu egin du, nire sinesgogor aurpegia ikusita:

—Antzina bai elkartzen zirela horko aldean Espanyol futbol-taldearen zalerik erradikalenak, eskuin muturrekoak,

eta gaur egun fatxen manifa asko hortik abiatzen dira, baina atzoko topaketa zoritzarreko kasualitate hutsa izan zen.

Ez dut zintzotasun zantzurik ikusten sudur partxedunaren atzetik so egiten didaten begi beltz txiki horietan.

—Nork egin zuen lan-eskaintza? —galdetu diot.

—Morroi ezezagun batek, telefonoz, ez nion ahotsa ezagutu.

—Zer eskatu zizun?

—Gizon beltz bat, galanta eta, ahal dela, ilegala.

—Zergatik ilegala?

—Ideiarik ez, ez nion galdetu. Ezin izan dut berarekin berriro kontaktatu, baina azalpenak eskatuko dizkiot, eta asmo txarrez jokatu zuela enteratuz gero, larrutik ordainduko du.

Ez naiz batere fidatzen Bulgariako bazter galduren bateko jatorria daukan morroi honetaz, baina orain nagoen egoeran berarekiko erlazioa guztiz etetea ez zait komeni. Izan ere, Petko lortzailea da ofizioz, lantxo-lortzailea, adibidez, eta aspaldion eskuratu ditudan euro apurrak —nire lapurreta desastrosoetatik ateratakoa alde batera utzita—, haren kudeaketei esker poltsikoratu ditut. Kudeaketa horien eraginez labankada bat jaso nuen atzo, horren ondorioz sudurra hautsi nion... Parra gaude, gutxi gorabehera; horrela ikusten dut nik, behintzat. Horregatik ausartu naiz haren Robador kaleko taberna-zulora itzultzen, horregatik eta ez nekielako non kolokatu nire azken lapurretaren emaitza.

Eskua sakelara eraman, lepokoaren bolak atera eta barra gainean ipini ditut.

—Zer eman ahal didazu honen truke?

Denbora gutxi behar izan du Danubioren jabeak erantzuteko:

—Pilotatxo horiek futbolinean ibiltzeko baino ez dute balio.

—Ez dira harribitxiak?

—Harribitxiak? —Hiena-barrea atera zaio—. Horiekin osatutako lepokoak euro gutxi batzuen truke erosi daitezke Rambletako edozein kinkaila-dendatan.

—Orduan, ezin didazu ezer eskaini?

Erantzuna mamurtu du segundo batzuetan, serio.

—Bai, zerbait bai: oraingoz ez diot inori enkargatuko zuri potroak ebakitzea, eta ez dut salaketarik jarriko zure kontra agresioagatik. Nahikoa iruditzen zaizu? —Biziak barkatzen ohituta dagoenaren aurpegiera ipini du, baina soberan dakit Petkok ez lukeela inola ere salaketarik jarriko inoren kontra, ze niri txakurrak urrun edukitzea komeni bazait, berari gehiago. Eta nire potroen salbutasunari dagokionez, ez nago seguru zer pentsatu.

Tentsio-une horretan klaxon-jotze labur bat entzun da tabernaren kanpoaldetik. Kristal iluneko auto zuri dotore bat gelditu da atearen aurrean; Petkok «zu egon hemen» esan, eta atoan jo du hara.

Atzeko atea ireki diote eta bulgariarra txakurtxo txintxo baten jarreraz sartu da; ezin izan dut ikusi nor dagoen barruan. Kontua da minutu pare baten egon dela hor, niri

opera-kantariak eta laguntzen dion koruak toreatzaile bati buruzko ez dakit zer istorio oihuka kontatzen didaten bitartean.

Halako baten, ate horretako leihoa jaitsi da eta bulgariarrarekin dagoenaren begirada sumatu dut beste aldetik. Bizar motzeko gizon zuri bat da, tinko so egin didana tarte batez. Gero berriz itxi da leihoa.

Xehetasun horren esanahiari buruz hausnartzen ari naitzela, atea ireki dute, Petko kalera irten da, ulertu ez dudana hizkuntza batez agur hitzak esan ditu eta autoa abiatu egin da.

Bulgariarra niregana itzuli denean bestelako jarrera antzeman diot, adeitsuagoa, atseginagoa. Badirudi bat-batean pasatu zaiola haserrea.

—Zertaz ari ginen...? Bai, galdetu didazu ea zeozer eskaini ahal dizudan zure lepoko kinkailaren truke. —Irribarre eta guzti egin dit, ezin dut sinetsi—. Ba beitu, hobeto pentsatu dut, eta, gure artean gertatu diren zoritxarreko azken txarto-ulertuak kontuan hartuta... —Barra ostetik giltza batzuk atera eta nire aurrean ipini ditu—. Gau bat eskaini ahal dizut nire ostatu apalean hats horretaz libratu eta ondo hartu dezazun atsedean. Zer deritzozu?

Ostatu apala *meuble* kutre bat da, Robador kalean bertan dagoena eta Petkok prostitutei alokatzen diena orduka. Niri bost zertarako erabiltzen diren normalean gela horiek, edonola ere Ravaleko Ramblako jarlekuak baino askoz ero-soagoak dira, dutxa eta komuna ere badauzkate... Benetan utzi behar dit hor egoten?

—Edo, hobeto pentsatuta, bi gau izan daitezke —erantsi du—. Zer deritzozu?

Ez dakit zer deritzodan, hau oso arraroa iruditzen zait. Hala eta guzti, morroia damutu aurretik, eskerrak eman, giltzak hartu eta kalera abiatu naiz.

Danubiotik irten baino lehen berriz entzun dut bulgariarraren ahotsa:

—Touré.

—Zer? —Jiratu egin naiz.

—Ziur-ziur zaude ez duzula txapero aritu nahi? Sarri eskatzen dizkidate gizon beltzak, oso kotizatuta zaudete aspaldi honetan; diru kopuru ederrak eskuratuko zenituzke egunero, eta eroso bizitzeko aukera emango lizukete.

—Ahaztu.

Lehenago zalantzak izan banituen, atzoko esperientziaren ondoren guztiz uxaturik daude. Nire bizitzako leloa «dena sosaren alde» izan da azken urteotan, baina zuzenagoa izango litzateke «ia dena sosaren alde». Gizonekiko erlazioak «ia» horren barruan sartzea erabaki dut, kito.

—Nahi duzun bezala. Dena den, hori da zure salbuespen bakarra?

—Zer esan nahi duzu?

—Badakizu zer esan nahi dudan. —Tinko so egin dit—. Beste edozer egingo zenuke diru truke?

Azken urteotan izan ditudan ogibide xelebreen zerrenda anitza eta amaigabea etorri zait burura, baita poliziaren xantaien erruz edo desesperazioaren eraginez egindako okerkeriak ere.

—Ia-ia edozer. Zerbait interesgarria sortuz gero, zuk egin proposamena eta mintzatuko gara.

—Kontuan hartuko dut.

Musikaren bolumena igo du berriro Petkok. «*L'amour t'attend!!!*» ari dira oihukatzen kantaria eta korua aldi berean. Ez dator bat, inola ere, gisa horretako musika tabernarekin ezta ingurunearekin ere, baina gehienetan halako hots-banda egoten da Danubion. Oraindik ez diot puntua hartu bulgariar bitxi honi.

* * *

Ze atsegina den kalean bizi den batentzat ohe txukun baten etzatea, dutxa beroa hartzea, gero arropa garbi lehorrak janztea... Arratsalde honetan, Robadorren bertan dagoen *Grupo Nueva Vida* elkartearen lokalean eman dizkidaten kirol-jertsea eta txandal prakak jantzirik, bestelako sentieraz irten naiz kalera, aspaldion itotzen nauen ezkortasunaz apur bat libratuta. Edonola ere, erosotasun hau bi egunez baino ez da luzatuko, horixe da nire norabidea artezteko daukadan epea eta hobe dut bizkortu zerbait lortzekotan. Bi hautabide bururatzen zaizkit horretarako, bata komenigarriena: lantxo erdi iraunkorren bat eskuratzea; bestea, errealistena: palo onen bat ematea. Ezin jakin, ideiak argi ez dauzkadanean, metro-lerro luze baten sartu edo kalean ibili eta ibili egiten naiz, halabeharrak zerbait probetxugarria ekarriko didan esperantzaz. Orain, nire sosik eza kontuan izanda, bigarren aukera baino ez zait gelditzen.

Boqueria azokan, erosle eta argazkigile pilaketa aprobetxatuz, sagar gorri potolo bat ostu dut eta horren zaporea